

**KONTRARREFORMA GARAIKO  
LAPURTAR LITERATURAZ**

Topikotzat geratu izan da Euskal Literaturaren historian XVII. mendean letren munduak ez aurretik ezagutu ezta oso berandura arte berriro ezagutuko ez zuen loraldia izan zuela baieztatzen duena.

Historia horretan (horietan?) bertan esaten denez, loraldi-eremua iparraldera mugatu zen, "Donibane eta Ziburuko kostaldean, bai ere halaber *binterland* modura zuen Sara-aldeko lur barrenetan" (Mitxelena 1981, 288) hain zuzen, bertako euskalkiak ohore gehienak eraman zituelarik<sup>1</sup>. Azpimarratua izan da, orobat, Lapurdiko herri zenbaitek tradizio berezi bana sortu zuela letren alor desberdinetan: Donibane Lohizunek biblia-itzultzaileak (Urte anglikanoa eta Haraneder), Ziburuk XVII. mendeko poeta erlijioso handienak (Etxeberri, Gazteluzar eta Argaignaratz, bertako koadjutorra).

---

<sup>1</sup> Liburutzat har daitezkeen berrogei obretatik gehienak (%75etik gora) nafarrera-lapurteran idatzita zeuden mende hartan. Hegoaldean, berriz, ez zen erreakziorik izan idatzizko produkzioari dagokionez: "Resulta sorprendente que, mientras en el País Vasco francés personas bien dotadas de talento y de saber desarrollan en el siglo XVII un movimiento literario importante aunque reducido casi al campo religioso, no se encuentran a este lado de los Pirineos más que traductores de catecismos que, a pesar de recurrir a cada paso al préstamo y al calco literal, parecen haber tropezado con muchas dificultades en su tarea" (Mitxelena 1960, 63).

Jakina, maiz asko adierazi da fenomeno honek historiala-rientzat duen jite harrigarria, ez baita ongiegi argitu hain jende gutxiko<sup>2</sup> euskalki batean kuantitatibo eta kualitatiboki hain produkzio eskerga suertatu izana. Alabaina, sarriegi “ondorioz-tatu” izan da faktore desberdinen konfluentziak ahalbidetu zuela literatur lehertze moduko hura, Lapurdik garai hartan zuen maila ekonomikoa bera gutxiestekoena ez delarik.

Nolanahi ere, “faktore desberdinen konfluentzia” horretan badira behar beste arreta jasotzen ez duten hainbat elementu, orduko egoera literarioa ulertzeko funtsezko diruditenak eta hona ekarri nahi genituzkeenak.

### 1.- Ahozkotasunaren mundua, ahozkotasunaren garaia

Ezaguna da idatzizko literaturaren ahozko osagaiaren presen-tzia ez dela aztertuegia izan gure eremuotan. Nolanahi ere, nekez uka liteke inguru hauetako literaturaren ezaugarri hori, besteak beste gizarteak ia era eskusiboan bizi zuen kultur erreferentearen oihartzuna baino ez bailitzateke. Are nekezago, eredu idatzien ezagutza eta “demokratizazioa” hizkuntz esparru hauotara beran-du iritsi zen zerbait izan zela gogoan hartzen bada.

Bere tokia izan zuen ahozkotasunak XVI-XVII.eko gizartean eta, gehiago dena, “praktikatua” izan ohi zen, ahozkoaren espa-rru hartatik sortzen eta isurtzen baitziren erreferente nagusi as-ko. Horrela, inguruko “mundu”-etan bezala –kultur transmisio nagusia ahozkotasunaren bidez garatu zen, burua eta aho-mihia bitarteko–, idazleenean ere funtsezko kultura ahoz eta ahozko-tasunaren parametroen barnean burutu zen hein handi batean.

Lekuko historiografikoek ere ahozkotasunaren nagusitasun hori baino ez dute berresten. Euskal esparruan Etxepareren es-kutik agertuko den lehen literatur obra bera ahozkotasunaren itzalpean sortutako altxorra da. Baina euskarria idatzizko tes-

<sup>2</sup> Bizkaierak 105 mila hiztun, goinafarrerak 90 mila, behenafererak 60 mila, gi-puzkerak 50 mila, lapurterak 30 mila eta zubererak 20 mila (Sarasola 1976, 44).

tuetan zuten ondoko lanek ere –originaltzat har daitezkeen haietaz ari gara, eta ez beste hizkuntzetatik zuzenean eta estuki itzulitakoez– hori bera erakutsiko zuten, besteak beste ahoz-kotasunaren esparruetan sortuak zirelako eta ahozko “tresneriaren” bitartez barreiatuak izateko jarioak ere bazirelako, oroz gain irakurketa kolektiboen bidez<sup>3</sup>. Campbellek berak oroitarazten duen legez, lurralde aurkitu berrietan ere ahozkotasuaren bitartekaritza erabili zen kultur-bide nagusi gisa, berori baitzen bertan nagusi eta, aldi berean, giza-inguru alfabetatugabeetaraino iristeko bide bakarra<sup>4</sup>.

Konfiguratzen doazen bi kultur erreferentzia nagusietako ikuspegiak agertuko dira euskal lurraldeotan ere, beraien arteko lotura-elementu nabarmenak “ohiko” bilakatutakoak izango direlarik: erlijioa eta hizkuntza bereziki.

Baina ahozkotasunean murgildutako sektore zabalaz gain, bazen “gizarte-geruza” bat –ohiko terminologia erabiliz, agintari-klasearekin bat zegiena– harako hartatik alde egiten zihar-duena eta “idatziaren” esparrutik isuri ohi diren kontrol mekanismoak (legeak eta dogmak) ezartzen saiatuko zena.

Urruntasunak urruntasun, esan daiteke bi mundu haiek bazutela nolabaiteko korrelato grafikoa eguneroko bizimoduan. Lurrarekin eta itsasoarekin lotutako lanbideek (arrantzaleek,

<sup>3</sup> Juan Mari Lekuonak dioen moduan, “urtealdi hauetan ahozko literaturak zuen garrantzi estadistikoa azpimarratu ondoren, adierazi behar da, baita ere, argitaratutako liburuak, helburu pastoralak zuten gero, askotan jendarean aldarrikatzen zirela eliz batzarretan, liburu sakratu nahiz katekesiakok ziren arabera. Eta liburuok batzarretan irakurtzeko zuzendurik zeudenez gero, egileek idatzeko orduan helburu pedagogikoak hartzen zituzten kontuan” (Lekuona 1985, 61 or.).

<sup>4</sup> “De tal manera que las formas de difusión de la cultura española que había sido el resultado de múltiples adquisiciones a través de la tradición oral en el seno familiar y parroquial y en la que había un lector en cada grupo ante el que se sentaban a escuchar pasajes de las novelas de caballerías, cuentecillos, fábulas y hasta entremeses, sin dejar de considerar los elementos nativos de influencia, vinieron a prolongarse en el seno de las nuevas sociedades americanas” (Campbell 1993, 212).

untzigileek...), esate baterako, zeharka baino ez zuten ezagutuko “testu idatziaren” mundua, arrazoiak maila ezberdinetakoak izan zitezkeelarik: kultura idatziak eskatu ohi duen praktikarako denbora eskasa, alfabetizazio maila apala, euskarazko testuen falta, gabezia horren aurrean idatzizko testuetara (batik bat testu erlijiosoetara) iristeko elizgizonen “bitartekaritza”, etab. Eta, edonola ere, “mundu idatzia” ezagutzeko beta izan zezaketengan ere ahozko “tresneriaren” bitartez izango zen eskuarki, ez bazen, jakina, aipatu “mediazioaren” bidez.

Jakina denez, aipatu elizgizonak zeuden korrelazio horren beste muturrean. Haien lanbidea bera izan zen hein handi batean “mundu idatzian” ihardutera bultzatuko zituena (sermoiak aldeztatik idatziz prestatzeko, besteak beste). Idatziaren esparruko egiteko horretan, Jainkoaren hitz ezin ukituzkoa gordetzen omen duen liburua altxatuko zen lehen iturri gisa. Ezbairik gabe, haien kultur maila, alfabetismoa eta idatziarekiko bestelako loturak oro, kontrarreformaz geroztik larriki zauritua gelditu herri-tradizioaren (ohiturak, ahozko produkzioa, etab.) ordezkotza egiten hasteko elementu bihurtu ziren.

Ildo horretan, 1545etik aurrera, eta batik bat hurrengo ehun urteetan, garai hartan “zilegizkoa” zen munduaren eta kulturaren zaindari eta bermatzaile bakarrak bilakatu ziren idatzizko kulturaren protagonismo ia eskusiboa zuten apaizak eta elizgizonak. Eta horrela, Lapurdikoa bezalako gizartean<sup>5</sup> Eliza katolikoa izango zen urte haietako bizimoduaren kontrolatzaile hertsia, eta horrekin batera, kultur elementu berrien “sortzaile” (= ezarle) bakarra, kontrarreformaren eraginez anatemizatutako beste batzuen ordeztarriko ziren elementu berrien sortzailea, alegia.

<sup>5</sup> Azken batean, Europakoa bezalakoa baino ez litzateke dagokigun lurraldean suertatutakoa, nahiz eta gurearen ezaugarriengatik agian areagotua gertatu zen hemengoan. Honela irudikatu zuen Burkek egoera orokorra: “Entre 1550 y 1650, muchas costumbres tradicionales fueron abolidas. Mediados del siglo XVII, puede ser tomada como la fecha en la que concluye la primera fase de la reforma de la cultura popular; una reforma que nació gracias al impulso de las reformas católica y protestante y que fue –principalmente–

Panorama gatazkatsu horretan, idatzia eta ahozkoa kontrajarri-rik agertuko ziren hasierako uneetan, nahiz eta berehala antzemango zen ahozkotasuna ordezkatzeko sortu parametro idatziek ezin lotura estuagoak zituztela ordeztu nahi zuten horrekin. Eta haren kontra burrukatzeko jaioa bazirudien ere, idatziak etengabe erakutsiko zuen ahozkoarekiko morrontza, biak ezin hautsizko zilborreste batek lotuak bazeuden bezala. Euskarazko hitz lauaren jaiotza momentu haietan gauzatuko zen eta horren guztiaren erakusgarri azalduko zen.

Erreforma protestanteak hitzari eta sermoiari eman zien garrantziaren ondorioz, ahozkotasunaren esparruak hedapen berezia ezagutuko zuen interes erlijiosoak medio, ohiko ahozkotasun fenomeno hutsa ez zen haren presentzia eguneroko bizitzaraino hedatu zelarik. Modu berdintsuan jokatu zuen kontrarreformak ere bere zabalkunde ideologiko-erlijiosoa planteatu zuenean. Izan ere, erretorika eta ahozko predikazioak gizarte eta garai hartan zuten balio pragmatikoaz oharturik zeudelako areagotu zen tresna horien erabilera. Arrazoi nagusia begi bistakoa da: jakituria eta maila guztietako bizi-komunikazioa ahoz aho transmititzen zuen gizatalde hartan ahozko baliabideak ziren eraginkorrenak eta praktikoenak ezinbestean, bestelakoak, hots, idatzizkoak, inprimatuak edota papera euskarri bezala erabiltzen zutenak minoritarioak, urriak eta soil-soilik alfabetatuengana iristeko modukoak zirelako. Ez erreformistek eta ez katolikoek, beraz, ez zuten gutxietsiko baliabide horien praktikotasuna.

Dena den, ez da ahaztu behar "idatzia"-ren eremuak ahozkotasunaren esparrua betetzera zuzenduak izan zirela hein handi batean, bereziki irakurketa publikoak edota ozenak bideratzeko eginkizuna hartzen zutenean. Idatziaren balioa ez zen inolaz ere erdeinatuko, alderantziz baizik: errekurtsio guztiak baliatuko zi-

---

liderada por el clero, lo que en definitiva justificaría la importancia de los argumentos teológicos. Esta primera fase fue seguida por otra en la que los laicos tomaron la iniciativa" (Burke 1991, 315).

tuzten erreforma protestanteak zein katolikoak, bi-biek, eta salbuespenik gabe<sup>6</sup>. Guztiarekin ere, Juan Mari Lekuonak XVI. eta XVII. mendeetako prosari buruz esaten zuen legez, ahozkotasuna, modu batez edo bestez, elementu omnipresentea izango da garai honetan idatzitako produkzio gehienez: “esan nahi da, *ahozko literaturaren ardatzek eragin berezia izan zutela, bai textuak idazterakoan, bai hauek ulertzerakoan*” (Lekuona 1985, 61 or.; gurea da letrakera etzana). Historikoki gure literatura “idatziak” –barka bekigu erredundantzia– baluke horren lekukotasun nabarmenik. Soberan legoke, dena dela, Etxepare eta Etxeberri Ziburukoaren hitzak eta obrak aipatzen hastea, ezagunegiak bailirateke adibideok edonorentzat.

## 2.- Literatur tradizioa eraikitzen

Ibilbide motza egin zuen euskal literaturak XVII. mendean eta ez zen ez eredurik ez erreferentzia gisa erabil zitekeen obra edo autorerik, izan ere, ustezko arinkeriagatik edota planteamendu ideologikoengatik ez baitziruditen eredugarriegi Etxepare eta Leizarraga erreformista<sup>7</sup>. Etenketa, bada, emanda zetorren literatur tradizioa eraikitzen hasi bezain laster.

<sup>6</sup> Ondorioz, bi funtzio betetzeko helburua nabarmenduko zen idatzitakoaren esparru erlijioso haietan irakurleei zegokienez: batetik, irakurtzen zekitenak gogoan hartuak izango ziren, besteak beste, haien irakurketak beste irakurketa ez hain piadosoetara desbidera ez zitezen; eta, bestetik, predikaziorik eta sermoirik ez zegoenetan (lanegun zurietan nahiz esparru geografiko urrunetan, alegia) analfabetoei geratzen zitzaizkien hutsuneak irakurketa ozenaren bidez beterik gera zitezen. Honako hauetan, begi bistakoa da, oralitate garbi hutsak betetzen zuena idatzizkoan oinarritutako oralitate (bigarren mailako oralitatea edo ahozkotasun landua, alegia) bihurtzen zen.

<sup>7</sup> Gogoratu beharrik ere ez dago Leizarragarena bezalako lanak espreski debekatua zituela eliza katolikoak: “Como la experiencia aya enseñado, que de permitirse la sagrada Biblia en lengua vulgar, se sigue, por la temeridad de los hombres, más daño que provecho, *se prohíbe la Biblia con todas sus partes impresa, o de mano, en qualquier lengua vulgar; i assi mismo los Sumarios, i compendios, aunque sean historiales, de la misma Biblia, o libros de la Sagrada Escritura, escritos en qualquier idioma, o lengua vulgar*” (*Index librorum prohibitorum*, 3 or.; letrakera etzana gurea). Guztiarekin ere, ondotoxo ezagutu eta erabili zuen Axularrek Leizarragaren lana (ikus Salaberri 1999 eta 2000).

Euskarazko letra idatzietara ohitzen hasi berria zen gizarte hartan, beraz, denak izango ziren berri berriro ere: idazleak, irakurleak eta idatzizko kodea. Ondorioak, jakina, berritasun horren mailakoak: erreferentzia munduak (hizkuntzarena, irudiena, baliabideena, etab.) ezagunak edota kulturalki hurbilen zituzten plataformetatik hartuak izango ziren. Eta horrela, "idazleek" kanpoko testuen itzulpena, moldaketa edota egokitzapena erabiliko dute baliabide nagusi gisa. Halaber, eredu-tzat hartutako jatorrizko testuen arabera eta inguruan zituzten hizkuntzen erara moldatzen hasiko da hizkuntza bera. Horrekin batera, erretorika izango da mezuaren eraketa ederrera baliatuko den tresna eta teknika, hartan trebatuak izango baitira idazletzan murgilduko diren guztiak.

Eta ahozkoitasuna, oroitarazi beharrik ez dago, elementu baztergaitza bilakatuko zen sortzen hasitako prosa idatzian. Eta ez bakarrik erretorikak berez zor zionagatik.

### ***2.1.- Konfigurazio ideologiko-erlijiosoaren bideetatik barrena***

XVII. mende honetako literaturaren ezaugarri nagusien artean haren planteamendu erlijiosoa izango da egiaz nabarmenduko dena. Eta ez, inolaz ere, ezaugarrien artean berez gailendu behar zelako, planteamendu ideologikoarekin batera, mundu-ikuskeraren berezi bat eta gizarte-mota bat jokuan daudelako baizik; Barrokoaren kultura bezala ezagutuko zen hori bere definizio propioa bilatzen zebilelako, hain zuzen; maila guztietan (erlijiosotik hasita maila sozio-politiko eta ekonomikoetara zihoazenetan) hierarkizazioarekin, zentralizazioarekin eta kontrolarekin segitu nahi zuen dinamika zalantzan eta iraulia izateko arriskua zegoelako. Hortaz, aurreko disidentzia guztiekin hausten duen dinamika zehatz hori eguneratzea eta konfiguratzea izango da garaiko esparru katolikoaren tresna eta baliabide guztien eginkizuna, literatura barne delarik.

Garai honetako euskal literatura, oro har, ikuskera barroko horren lehen ezaugarri eta faktore eragile den erlijio katolikoa-

ren kezka indibiduoetaraino eramango dituen literatura izango da, pertsona guztien barnean sakoneraino, burmuinetaraino sartu nahi duen planteamendu ideologikoa bideratuko duen literatura alegia, izan ere gizarte-motaren konfigurazioa ahalbide dezakeen lehen baldintza gisa hartzen baita pertsonaren kontrol erlijioso-ideologikoa.

Dinamika ideologiko berriztua izango da, beraz, literatura horrek irakurleen baitara barnarazi nahi duena, ahaztu gabe, gorago esan den bezala, dinamika horren ezaugarririk garrantzitsuenetarikoa haren izaera "mugiarazlea" dela<sup>8</sup>.

Praktikan, herri xehearen munduan ematen ziren jokamolde bereziak erlijio ofizialak ezin estal dezakeen mundu-ikuskerara askea eta kontrolatu gabea adierazten du. Nabarmenena sorginen arazotik atera daitekeena izango litzateke<sup>9</sup>. Bestelakoak, hots, bizitza eta portaera moralari dagozkionak eta, lehen mailako elementu laguntzaileak izango ziren gizartearen konfiguratzeko lan honetan guztian, "ukitu" nahi zen jende arruntarengandik hurbilen zeudenak zirelako. Ildo horretatik, esate baterako, ezagunegiak dira gorago marraztu den gizartearen ikusten diren fruitu eta gatazka konkretuak. Aski izan bedi hemen elizgizonek zeramatzen bizimoduaren erlajazio maila

<sup>8</sup> "A este individuo con quien el siglo XVII se enfrenta hay que moverlo desde dentro [...] Y ésta es una tesis que se repite un sinnúmero de veces, dando a esa idea de admiración un carácter dinámico interno. Hay que mover al hombre, actuando calculadamente sobre los resortes extrarracionales de sus fuerzas afectivas" (Maravall 1975: 1983, 170).

<sup>9</sup> Historikoki sorginkeria kolektiboa dela eta, "en 1575-1576, hay un brote en la montaña de Navarra, y, en 1595, otro foco importante en Araiz. Entrando en el siglo XVII, el resonante proceso de Zugarramurdi y su consiguiente Auto de fe de Logroño de 1610 constituyen la última gran acción contra la brujería en Navarra" (Reguera 1984, 211). Dena den, eta aski exageraturik agertu bazituzten ere, inkisizio-prozesuetako datuetatik mentalitate primitiboaren aztarnak inferi daitezke, erlijio katolikoak eta haren inguruko sektoreek ezin onar zitzaketanak. Oro har, superstizioz eta lurrarekiko loturez ziritinduriko mentalitate indibidulista xamarra litzateke, betiere akelarrearen irudi kolektiboa guztien gainetik gailentzen den arren.



gogoratzea. XVI. menderarte, adibidez, aita sainduengandik hasita azken apaizenganaino, zerua irabazteko erakusten zituzten “ereduak” ez ziren eredugarriak<sup>10</sup>. Eta, hurrengo maila jerarkikoek antzeratsu jokatzeko bazuten ere (gotzaiak, etab.), arazoa gaizkoatu egiten zen herri xeherarengandik hurbilen bizi ziren apaizekin, beraiek baitzituen herriak eliza-egituraren eta sinismen katolikoaren erreferentzia ia bakarra<sup>11</sup>.

Erlaxazioz beteriko gizarte haren aurrean –betiere beste zer baiten adierazgarria zen askatasun haren aurrean, hain zuzen– Kontrarreformaren ondoko kultura barrokoak bide estuak erabiltzea erabakiko du, besteak beste dagokigun literaturak erakusten duen moral estuarena.

Literatura aszetikoarena izango da gizarte-morala modu pragmatiko, indibidualizatu eta “mugikor” batean erakusteko eta zabaltzeko garatuko den bidea. Eta ondorioz, aszetika, kateketika eta hagiografia arlokoak izango dira euskal literaturan luzaroan landuko diren gai eremu ia bakarrak, betiere Eliza katolikoak markatutako bide meharretatik atera gabe.

Bestalde, planteamendu pedagogiko-erlijioso horrek ekarriko dituen berrikuntzen artean, ikuspuntu soziolinguistiko batetik begiraturaz gero, euskarari ematen zaion erabilera normalizatu(ago)an datza garrantzitsuena. Horrela sortu ziren katexima eta itzulpenek beste modu batez bideratuko zuten hizkuntz arazoa, beraz.

Idazgaiak aukeratzeko baldintzak aski garbi azaltzen dira Elizaren idazkietan, honek idazteko ereduak garbiki markatzen

<sup>10</sup> Gogoratu, esate baterako, Julio II.aren (1503-1513) gerlazale ospea edota “ilizitoki ezagutu emakumeengandik” sortutako seme-alabez inguraturik bizi ziren Inozentzio VIII.a (1484-1492) edo Alejandro VI.a (1492-1503) aita sainduen ereduak.

<sup>11</sup> “Muchos prelados sólo decían misa en raras ocasiones. Gran número de sacerdotes, en el bajo clero, vivían en concubinato y tenían hijos bastardos, cosa que, por otra parte, no significaba que llevaran una vida disoluta. Vestidos como el resto del pueblo, jugaban a los bolos con sus feligreses, iban a la taberna y tomaban parte en los bailes pueblerinos” (Delumeau 1967, 16).

dizkiolarik horretan ihardungo duen elizgizonari. Eta beti arau moduan agertzen ez badira ere, idazlegaiak bestelako erreferentziak aurkituko ditu ezarri zaizkion bide meharretatik irteteko arriskurik ez izateko.

Trento ondoren argitaratzen hasiko ziren *Index librorum prohibitorum* izenekoak, esaterako, argitaratu nahi zen gauztiaren eredu negatibo bilakatuko ziren. Bertan, ezaguna denez, liburuen eta autore zenbaiten debekua egiteaz gainera, oso garbi gelditzen da idazki erlijiosoetan zer, zein hizkuntzatan eta nola erabili behar den. Adibide gisa, 1597an Venezian latinez argitaraturikoa oso laburra bada ere, 1612an Madrilen gaztelera azaldutakoa liburutzar bihurturik plazaratuko da. Oro har, hasieran dauden arauak ("Reglak") oso interesgarriak dira hizkuntzaren arazoa eta hurrengo urteetako liburuen argitalpen politika egokiro ulertzeko<sup>12</sup>.

<sup>12</sup> "REGLA III: Las versiones de la Biblia, assi del Viejo como del Nuevo Testamento, hechas por los dichos Autores (*Index*-can kondenatuak, kalbinistek edota herejeak), generalmente se prohiben; mas con licencia nuestra *in scriptis* i no de otra manera, podran hombres doctos i pios tener i leer las Versiones del Viejo Testamento hechas por los dichos Autores, con que usen dellas como de elucidacion de la Edicion Vulgata, para entender la sagrada Escritura, i no como Texto sagrado, ni autentico. Pero no daremos la dicha licencia para tener, o leer las Versiones del Nuevo Testamento hecho por los dichos Autores, por el poco provecho, i mucho peligro, que de su lección suele resultar a los lectores" (*Index librorum prohibitorum*, 2 or.)

"(...) Todo el volumen de la Biblia, comunmente llamada de Vatablo, impresso *Lutetiae* (...) 1545. o cada una de sus partes (...) le permitiremos a varones doctos i pios. Pero la parte del Viejo Testamento, siendo corregida conforme a la expurgación ya ordenada en este Indice, se permite a todos: i asi mismo el Volumen, i partes de la misma Biblia: el qual aviando sido visto, i examinado por Universidades por orden del Santo Oficio, fue buelto a imprimir, *Salmanticae anno* 1584. i aura de nuevo se enmienda por el Expurgatorio deste Indice, corregido conforme a el, se permite a todos, con que assi en la una como en la otra Edicion, ayan de usar de la nueva Traslacion no como de Texto autentico, sino como elucidacion de la Vulgata, en la forma arriba dicha" (*idem*, 3 or.)

"REGLA IV: (...) Como la experiencia aya enseñado, que de permitirse la sagrada Biblia en lengua vulgar, se sigue, por la temeridad de los hombres, más daño que provecho, se prohibe la Biblia con todas sus partes impressa,

Fenomeno hau, dena den, mende baldeko beste lurralde katolikoetan ere atzeman daiteke. Jakina, "irizpide" gisako liburu horietakoa ongi barneratua izango zuten gero idazle katolikoek, Granadako Luisek berak Bibliari buruz dioen honetan erakusten duen bezala: "[...] libros de la sagrada Escritura no conviene andar en lengua comun, porque hay en ellos muchas cosas oscuras, que tienen necesidad de declaracion. Asi que [...] razon tienen los que no quieren que haya estos libros" ("Prólogo gale-

---

o de mano, en qualquier lengua vulgar; i assi mismo los Sumarios, i compendios, aunque sean historiales, de la misma Biblia, o libros de la Sagrada Escritura, escritos en qualquier idioma, o lengua vulgar: pero no las clausulas, sentencias, o capitulos, que della anduvieren insertos en los libros de catholicos, que los explican i alegan: ni menos las Epistolas i Evangelios, que se cantan en la Missa por el discurso del año, no estando solos, sino juntamente el sermon, o declaracion, que para edificacion de los fieles sobre cada uno dellos se ha compuesto, o compusiere" (*idem*, 3 or.).

"Prohibense tambien las Horas, i diferencias dellas en lengua vulgar" (*idem*, 4 or.)

"REGLA VI: Prohibense los libros escritos en lengua vulgar que tratan de proposito de Disputas i Controversias en cosas de la Religion entre catholicos, i hereges de nuestro tiempo; mas vistos i aprobados, no aviendo inconveniente, concederemos licencia *in scriptis* para tenerlos, i leerlos, a hombres pios i doctos. Pero no se prohiben los libros, que tratan de forma de bien vivir, si no contienen cosa contra la buena i sana doctrina; como tampoco los Sermones en la dicha lengua vulgar" (*idem*, 4 or.)

"REGLA VII: PROHIBENSE Assi mismo los libros, que tratan, cuentan, i enseñan heregias, o errores en la Fè, ora sea exagerando i encareciendo los amores, ora en otra manera. I se advierte, que la santa Sede Apostolica Romana tiene prohibidos los dichos libros que tratan, cuentan, o enseñan de proposito cosas lascivas, o obscenas, aunque no se mezclen en ellas heregias, o errores en la fè, mandando que los que los tuvieren, sean castigados severamente por los Obispos; i que los libros antiguos deste genero compuestos por Ehnicos, los quales permite por su elegancia i propiedad, en ninguna manera se lean a la juventud" (*idem*, 4 or.)

"REGLA IX: TOTALMENTE Se prohiben los libros, tratados, indices, cedulas, memoriales, receptas, nominas, escritos, i papeles de Geomancia, Hydromancia, Aeromancia, Pyromancia, Onomancia, Chyromancia, Negromancia; o en que se contienen sortilegios, hechizos, qualesquir aguerros, encantaciones de arte Magica, bruxeria, cercos, caracteres, sellos, sortija, i figuras, o invocaciones de demonios, en qualquier manera que sean" (*idem*, 5 or.).

ato”, *Guia*, 6). Ikus daitekeenez, eliza erreformistek hartua zuten politikaren aurkako joera izan zen hau bete-betean.

Guztiarekin ere, azpimarratu beharrekoa da inguru hauetako *Index* inkisitorialak (Fernando Valdes-ek 1559an prestatutakoa, besteak beste) Erromakoak baino askoz ere hertsiago eta debekatzailleago izango direla (Bujanda 1985).

Hemen interesatzen zaigun garaiari gagozkiolarik, begi bistakoa da eliza kontrarreformistak markatutako hode “estuago” horietatik abiatuko dela euskal letren produkzio guztia XVII. mendearen lehenengo erdialdean behinik behin, oro har oso panorama berezia –zilegi bekigu eufemismoa–, “bideratua” eta, aldi berean, urria antzemango delarik.

## **2.2.- Hizkuntz egoeraren kontzientzia**

Lapurdiko gizartearen osaketa anitza suertatu bazen ere (Euskal Herriko barne-inmigrazioaz gain, Espainia eta Portugaletik etorritako judutarrak, etab.), hizkuntzari dagokionez erabatekoa izan zen euskararen hedapena eta erabilera. Hiri zenbaitetan beste hizkuntzekin batera agertzen zen, baina horrek ez zion euskarari nagusitasuna ukatu, are gutxiago ia erabat elebakarrak ziren barne aldeko herri eta populazio-guineetan.

Horrekin batera, herri handietan –batez ere Donibane Lohizunen eta Ziburun– biltzen diren jatorri ezberdinetako euskaldunen presentziak desberdintasun dialektalen kontzientzia sortu zuen behinik behin eta, ildo horretatik, idatzirako euskara batu antzeko baten beharra agerian utzi.

Hizkuntzaren kontzientziaren formulazioa, dena den, Lapurdi alboko euskalkia erabiliz 1545ean argitaratu zen lehen euskal liburuan plazaratuko zen. Etxepareren bertsoetan ezin garbiago agertuko da euskarak arlo idatzira pasatzeko duen premia eta, aldi berean, horretarako erakusten duen gaitasuna, bertsoak horren frogarik adierazgarriena direlarik. Horri euska-

rak plazaratzeko eta munduratzeko duen beharra eransten dio Etxeparek, hizkuntzaren egoeraz lehenengo oharpen soziolinguistikoa eginez.

Handik mende laurdenera, Leizarragaren lan taldeak berak planteatu zuen hizkuntz finkapenaren arazoa eta, arazoa gainditzeko, proposamen ezin perfektuagoa aurkeztuko zuen *Testamentu Berria*-n.

Historiaren ibilaldian, ordea, kalbinistaren proposamenari uko egingo zitzaion, baina finkapenaren arazoak bere hartan iraungo zuen. Materrearen hitzaurreak eta obrak eta Axularrenek, besterik ez aipatzearren, hori baino ez dute erakusten, batasunaren premia grafia eta ortografia mailaraino eramango dutelarik.

Horrekin guztiarekin batera, ezin da ahaztu Lapurdiko gizartearen konfigurazio soziolinguistiko horretan eliza ofizialari ere parte garrantzitsua dagokiola, izan ere Eliza hasia zen tokian tokiko hizkuntzen erabilera onesten, leku gehienetako Sinodaletan azaltzen den bezala, elizak “[...] onespena eman zien erabilera mintzatu eta idatzi batzuei, baina erdarak eta latina baztertu gabe” (Intxausti 1990, 79).

Erabaki hauek euskararentzat onuragarriak izan baziren ere, nabarmentzekoa da Ekialdeko Elizek edota Erreformismoak berak euskara bezalako hizkuntzentzat askozaz ere neurri aldekoagoak hartu zituztela eliza katolikoak baino. Nolanahi ere den, tokian tokiko hizkuntzekiko giro “ulerkor” horretan sortuko dira XVII. mendean euskaraz idatzitako lehenengo obrak. Horrela, Bibliak eta ohiko liturgia latinez izango dira, baina kristauak lantzeko ikasbideak (elizliburuak, katezismoak, etab.) euskaraz.

Bestalde, gogoratu beharrekoa da XVI.aren azken mende laurdena eta XVII. mendearen lehenengo erdialdea euskararen apologien sorrera-urteak direla eta, hegoaldean argitaratu gehiena erdaraz izango dela (Garibai 1571, Poza 1587 eta

Etxabe 1607), eta euskara bihotzerako eta erdara ezpainetarako uzten duten horien guztien kontrako jarrera agertuko duela Klaberiak, agian Iparraldeko idazle gehienei estrapola dakiekeen jarrera kritikoa eta aldi berean pragmatikoa erakutsiz<sup>13</sup>.

Honako jokamolde hauek, maiz azpimarratu legez, hizkuntzarekiko kontzientzia desberdintasunaren adierazgarri nabarmenak baino ez dira. Hegoaldean praktikatu bainoago teorizatu egiten den bitartean, iparraldean erabili egiten da hizkuntza, eta, bide batez, erabilerarekin demostratu egiten da hizkuntzaren malgutasuna, balioa eta egokitze ahalmena.

### ***2.3.- Erdarazko literaturak iturri***

Gurean zinezko lehen prosa lapurtera klasikoaren esparrukoa da, beraz. Eta sorrera guztietan gertatu bezala, baldintzatu sortu zen, baldintzetako lehen faktore aipagarria literatura mota hori sortuko duten idazleen prestakuntzan datzalarik.

Inor ez du ustekabeen harrapatzen idazle bihurtuko ziren horien prestakuntza kulturala eta literarioa beste hizkuntza bat(zu)etan burutu zirela esateak. Euskal munduak horretarako ezin eskaini zezakeen erakunde, hizkuntza landu eta beste horrenbeste elementu, alboetako erresumetan aurkitu ahal izan zituzten idazle bezala agertu zaizkigunok.

Materre, esaterako, eta emblematikoenetariko bat adibide gisa jartzeko –ez baitzen lehen euskaldun idazle kontrarreformista alferrik izan–, elizgizona izateaz aparte, frantses kultur mundutik datorren gizona da. Haren erreferentzia kultural guztiek iturri hori baino ez bide dute (eta honekin ez genuke inolaz ere latinezkoa ahaztu nahi).

Axularren kasuan, Urdazubin premonstratenseekin ikasi bide zituenak, idatzizkoaren alorrari dagokionez, gaztelera eta latina-

<sup>13</sup> Gogoratu Klaberia apaizaren harako “Burlatzen naiz Garibaiez...” hura (in Etxeberri Ziburukoaren *Eliçara erabiltçeco liburua*, 1636).

ren ildokoak izan zirela susma daiteke. Gerokoek ere, hots, batxilergoa lortzeko erreferentziek, erdaraz diharduten kultura eta literaturaren gorabeheretan barneragotzeko balio izango diote.

Bigarren faktorea, nahi bada, sortzen diren obren izaeran bertan legoke. Obrak beste hizkuntzetatik itzuliak izango dira edota, kasurik hoberenean, originalki moldatuak, baina betiere erreferentzia nagusien erroak –ideologiko-formalak, batik bat– beste hizkuntzetako literaturetan zituztela.

Adibide zehatzetara joz gero, 1545-1645 bitartean euskaraz idatzitako prosa lanek hori baino ez dute erakusten (gogoratu Leizarraga, Materre, Axular eta besteren kasuak).

Baina txertaketa hau ez da testuen dependentzian edota hizkuntzarenean amaitzen. Areago, liburu hauek erabiliko duten sistema erreferentziala, hots, irudiak, exenpluak eta bestelako elementuak eremu klasikoetatik eta, oro har, erdal tradizioetik datoz, normalean erreferenterik nagusiena *Biblia* delarik eta ez herrikoitasunaren ingurukoa (gnomika propioa, mitologia, etab.). Alderdi horretatik, beraz, mundu kamustu bat, zeukan aberastasunean mundu irendu bat da landu gabeko euskaldunari eskainiko zaiona. Kulturalki, beste hitz batzuek esateko, ohikoen eta arrunten diren sinbologia eta irudi erlijiosoak potentziatuko dira testuetan eta uniformizazioa –ideologikoa zein erreferenteena– erabatekoa izango da. Irakurle euskalduna eta haren hizkuntza, zentzu horretan, ideologikoki erabiliak izango dira, kontrarreformari eskær lekiokkeen elementu bakarra euskararen erabilera bera baino ez delarik; hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzak ahalbidetzen dituen elementu estilistikoena, zehatzagoak izateko.

Bestalde, gauza jakina da itzulpen eta moldaketetan oinarritzen den literatura batek, logika historikoaren poderioz, gutxienik atzerapen kronologikoa erakusten duela iturriekiko.

Halere, ez da bakarrik urte batzuetako atzerapen kontua hemen adierazi nahi dena. Haratago doa berankortasunaren

arazoa, gizatalde batek, egunero darabilen hizkuntza kultur moldeetara pasatzeko erabaki berantiarreko arazoaren arrazoiez galdetzeraino, hain zuzen. Literaturaren berankortasunak, finean, gizataldeak soberan bide duen<sup>14</sup> kultur tresna bidez hitz egiten du.

Dena den, atzerapenaren zama hau hurrengo mendeetako prosan areagotuko bada ere<sup>15</sup>, ezin ahaz daiteke elizak berak bortizki erreprimaturiko gizarte txiki honetan bideratzen duen pragmatismo erlijiosoaren ondorioa ere badela. Sormenezko prosan inolako inkurtsiorik egiteko gogo eta ausardiarik gabe geratu den gizarteak derrigorrezkoa du erresuma erlijiosoa arriskurik ez duten arma ideologiko(-literario?)ekin defendatzea, ongi eza gutzen baitzituen arlo erlijiosoan desbideratu ondoko fruituak.

Erraz uler daitezke, beraz, esperimentu erlijioso-literarioetan ez erortzeko ahaleginak eta bide ziurrenetik jotzekoak<sup>16</sup>.

<sup>14</sup> Horrexegatik ere, besteak beste, soberan leudeke beste hizkuntzetako literaturarekiko kouparazioetan erortzeko ahaleginak. Izan ere, euskarak ezagutu zuen lehen saio idatzia baino askoz ere lehenago sortuko da hemen XVII. mendean ugaltzen hasiko den prosazko produkzio mota. Delumeauren hitzetan, "Se estima que un 75 por ciento de la producción tipográfica de 1455 a 1520 correspondió a obras religiosas. La *Imitación*, las *Biblias de los pobres*, el *Espejo de la humana salvación*, el *Ars moriendi*, la *Vita Christi* de Rodolfo el Cartujo, y gran cantidad de obras piadosas, conocidas ya en manuscritos, alcanzaron repentinamente una extraordinaria difusión. La *Imitación* fue impresa, antes de 1500, en diversas lenguas, sesenta veces" (Delumeau 1967, 21).

<sup>15</sup> Hain uruti joan gabe, Tartasen *Ontsa biltzeko bidea* ere, 1666an argitaratuko zena, ia bi mendetako atzerapenarekin agertu zen European heriotza edo "memento mori" delakoa gai ikonografiko bezala zerabilen literaturarekin konparatuta. Izan ere, haren aitzindarietako bat izan zen *Ars moriendi* izeneko liburuak ehun bat edizio izan zituen 1465etik 1500era bitartean.

<sup>16</sup> Ildo horretarik, Axularrek ondotxo zuritzen du bere burua liburuan egon zitezkeen bekatu edota fedearen aurkako baieztapenen erantzukizunetatik libre geratzeko: "Escritura Saindutic, Eliçaco Doctoretaric eta liburu debocinozcoetaric, Axular Saraco errotozac vildua".



### 3.- Protagonistez

#### 3.1.- Idazlanak

Testuinguru soziologiko eta erlijioso honetan ulertu behar da, beraz, aszetika eta aszetikaren bidez eliza katolikoak sortu nahi izango duen eta zabalduko den mezua. Esparru erlijiosoan aszetikaren inguruko gai horiek izango dira, sermoiekin batera, kontrarreforma katolikoak garbiki, hau da, jorratu ahal izateko zalantzarik gabe, utzi eta baimenduko dituen eremu bakarrak (ik. *Index librorum prohibitorum et expurgatorum*, 6. araua).

Halere, badirudi gotzai batzuk beste batzuk baino beranduago ibili zirela eredu horiek gauzaten. Esate baterako, Axular apaiz bihurtu zeneko hiriko gotzaiak, Tarbesekoak alegia, bere elizbarrutian predikazioak eta katezismo-saioak herri hizkuntzan buru zitezen aginduko zuen 1644an: "Nous voulons [...] que vous fassiez le prosne et le catéchisme tous les dimanches en langue vulgaire, afin que le peuple puisse mieux comprendre les mystères et plus facilement les retenir pour son salut" (Cfr. Soulet 1974, 79)

Ageria denez, ordurako Baionakoak ibilaldi luzea zuen egin arlo honetan.

Horrezaz gain, argi esan genezake oso fenomeno zabaldua izan zirela eliz barruti guztietan gotzaiak argitaratzeko "arauak" edo "aholkuak". Eta guztiak oso antzekoak gainera, Trentoko Kontzilioan (1545-1563) markatutako ildokoak baitziren beti ezinbestean. Horien bidez, besteak beste kateximak bertako hizkuntzetan argitaratzea ahalbidetuko zen.

Ezagunen eta adierazgarrienetarikoan artean Kalahorra eta Iruñeako gotzaien *Sinodalak* deitutakoak izango genituzke. Kalahorrako 1602ko Sinodaletan, esaterako, Pedro Manso gotzaiak urtero kateximak euskaraz argitara zitezen agindutakoa<sup>17</sup>

<sup>17</sup> Euskarazko argitarapenez gain, dena den, oso garbi utzi zuen "Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence" "Porque semos informa-

ageri da: “*Cap. 4. que los Prelados hagan imprimir cada año doctrinas christianas en lenguaje acomodado a las prouincias*” (apud Urquijo 1923, 335)<sup>18</sup>.

Horrek guztiak garbi adieraziko luke Elizak argitalpen politika zehatza planteatua zuela hizkuntz berezia zuten lekuetarako. Oro har, begi bistakoa denez, XVI. mendearen bukaeran atzeman ahal izango da politika katoliko hori euskal eremuan, urte horietan hasiko baita argitalpen erlijioso kontrarreformisten aroa<sup>19</sup>.

Era berean, Lapurdin emango den produkzio idatziak<sup>20</sup> ere horrelako plangintza edo aginduen ondorio dirudi, eta ez ba-

---

dos que en la tierra Vazcongada, y especial en algunos lugares, que la mayor parte dellos habla Vazquence, los Predicadores por autoridad predicán en Romance, y no en Vazquence: de lo qual se sigue grande daño, y q(ue) la gente q(ue) viene de las caserías a oyros como no sabe(n) Romance se salen ayunos del Sermon. Por tanto S.S.A. Ordenamos y mandamos, q(ue) en los tales lugares, los Sermones se hagan en Vazquence, y los Curas non consientan otra cosa, so pena que serán castigados, y lo mismo guarde(n) los dichos Curas quando declararen el Euangelio” (Urquijo 1923, 339).

<sup>18</sup> Eta honela jarraitzen du: “Y porque es conuiniente que cada Prouincia tenga la doctrina Christiana impressa en lengua paterna: y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del señorío de Vizcaya, Prouincia de Guipuzcoa, y Alaba. Estatuymos y ordenamos, que los señores Obispos nuestros successors, hagan imprimir cada año Cartillas de la doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, segun el vso de las dichas Prouincias, para que los Curas tengan Cartillas en la lengua propria de cada Prouincia, que Nos assí lo hemos comenzado a hazer en nuestro tie(m)po. Y los Visitadores tengan cuenta de executar lo que se les encarga en el capitulo antecedente. Y las que se imprimieren en Vazquence, tengan tambien la Doctrina en Romance” (*idem*, 335-336).

<sup>19</sup> Elsoren *Doctrina Christiana* (1561: galduta) eta Betolazaren *Doctrina Christiana* (1596) horren lehen erakusgarri genituzke.

<sup>20</sup> Materreren *Dotrina Christiana*, (1617) (Axularren hitzak liburuaren onepenerako), Materreren *Dotrina Christiana*, 2. argitalpena (1623), Etxeberri Ziburukoaren *Manual Devotionezcoa* (1627), Noelak eta bertze canta espiritual berriac (1631), Haranbururen *Debocino escuarra, miraila eta oracinote-guia* (1635), Etxeberri Ziburukoaren *Eliçara erabiltceco liburua* (1636), Argaignaratz, *Avisu eta Exortatione probetchosac bekhatorearentçal* (1641: galduta), Axularren *Gero* (1643). Hegoaldean Beriainen *Tratado de como se ha de oír Misa* (1621) eta *Doctrina Christiana* (1626) agertuko ziren XVII. mendearen lehenengo urte haietan.

karririk argitaratutako obra gehienak mailakatuta eta urte diferentetan agertzen direlako (urte berean bat baino gehiago inoiz elkartzen ez direlarik), ekonomia eredu desberdinak eta irakurleen *modus vivendi* direlakoak ere oso kontutan hartzen zituztelako baizik<sup>21</sup>.

Ustezko planifikazio horren aztarnak Materreren *Doctrina Christiana*-ren bigarren argitalpenaren ondoko hogeitau urteetan aurki litezke nagusiki (1623-1643). Izan ere, lehenengo obra kontrarreformista honen arrakastaren aurrean, eta literaturaren bidezko sistema Eliza eta elizgizonak iristen ez ziren pertsona, une, espazio eta medioetan oso erabilgarria izan zitekeela ikusirik nonbait, Baionako Elizbarrutiko arduradunek, Bertrand Etxauz buru zelarik, produkzio idatzia bultzatzea erabaki bide zuten<sup>22</sup>.

Nahita sinplifikatutako eskema honekin jarraituz, fenomeno esanguratsu bat adierazi nahi genuke berriro ere lapurterazko

<sup>21</sup> *Modus vivendi* horiek eragin zuzena erakutsiko dute erlijio eta moralaren esparruan eta, aldi berean, jokamolde berezia eskatuko. Arrantzaleen mundu "galgarriak", esate baterako, nekazaritzakoak ez bezalako tratamendua behar bide zuen: Ternua eta Kanadatik neguan etxeratzean, aurreztutako guztia jan-edanetan xahutu eta gero arrantzaleak berriro lehen bezain pobre itzuli ohi ziren itsas lanetara, familiak inolako errekurtsorik ez zutela geratzen zirelarik. Lancrek zioenez, "esto a la larga trae el desamor en los matrimonios y relajación de las costumbres" (Lancre, *Tableau de l'inconstance des mauvais auges et demons...*, 1612, I. lib. II. disk., 38 or., apud Caro Baroja, 1985, 167). Horren aurrean, tratamendu bereziaren alderdi garrantzitsua liburu erlijiosoek berek bete zezaketen, Etxeberri Ziburukoaren obra lekuko.

<sup>22</sup> Maiz asko nabarmendua izan da urte hauetan esuakraz argitaratu liburuetatik gehienak Lapurdi aldekoak gertatu izana, merkatuari eta erabilitako euskalkiari ohartuz gero bereziki inguru haietako irakurleentzako eginak direla ikus baitaiteke. Baina berriro geundeke hemen ezin gehiago harro daitekeen utsezko desoreka horren arrazoiaren esparruan. Edozein modutan, arrazoi bide du Urkixok hegoaldeko egoera urriaz honako hau dionean: "parece difícil admitir, dadas las buenas disposiciones de D. Pedro Manso, que en tan largo espacio de tiempo no salieran a luz otras ediciones de la Doctrina Cristiana en dialecto vizcaíno" (Urquijo, 1923, 337). Betolazaren *Doctrina Christiana* (Bilbao, 1596) liburuaz gain, esan nahi du.

literatura erlijioso honetan, obren taxuketan antzematen diren planteamendu desberdinei dagokiena hain zuzen. Hitz gutxiz esanik, badirudi produkzio guztia formalki bi multzotan bana daitekeela: multzo batean elementu “poetikoak” (hitz lotuz osatutako obra sorta) biltzen duena, ahozko fenomenoari zuzenean atxikia, eta bestean hitz lauzkoa (itzulpenak, batetik, eta sormenezkoak edo, behinik behin, sormenerako bidean daudenak, bestetik)<sup>23</sup>.

Lehenengo begiradan zalantza ezinezko dirudien banaketa hau, alabaina, zaildu egiten da arazoa ahozkotasanaren munduarekiko loturen arabera planteatzen bada, hau da, testuen barneko izaerari eta dinamikari behatzen bazaio. Izan ere, dugun literatur urritasun honetan, erabateko itzulpenak ez diren obrek, uste baino lotura estuagoak erakuts ditzakete eta erakusten dute aipatu mundu eta fenomeno horrekiko. Baina horretaz dagoeneko esana dugu argigarri izan daitekeen zerbait, eta irakurlea hara bidaltzea baino ez zaigu geratzen, beraz.

### **3.2.- Idazle, “Eskola” eta irakurleez**

Ezbairik gabe esan daiteke XVI-XVII. mendeetako idazleek beste hizkuntza bat(zu)e(t)an lortutako gaitasunak transferitu behar izan zituztela euskararen arlora, ez baitzegoen euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko beste biderik. Hortaz, lehenengo beste hizkuntza batean (latinean, gaztelera...) alfabetatuak izan ondoren, hizkuntza hartarako ikasitakoa haienera –euskarara esan nahi baita– egokitzen saiatu behar zuten ezinbestez,

<sup>23</sup> Horren aurretiko eredu kontrastagarrienak Etxepare eta Leizarraga ditugu. 1545eko Etxepare ahozkotasanarekin zeharo loturiko poeta dugun bitartean, 1571ko Leizarraga guztiz kontrakoa dugu: letraren eta kultura idatziaren adierazlea da. Batengan antzematen den freskotasuna eta askatasuna bestearengan herstura eta elementu landua bilakatzen da. Bata bere bertsoak aldatuak izan daitezten prest agertzen den bitartean –ahozko munduaren ezaugarri–, bestea aldatezina den Jainkoaren Hitzari lotuta dago erabat idatzizkoaren morrontza.

egokitzapen horren fruituetatik batzuk geratu zaizkigun obrak direlarik.

Beste hizkuntzen eredupean burutuko da, beraz, hizkuntza-ren formalizatzeko prozesu hori, eta horretan hasiko dira idazle-tzan sartzen, betiere transferentzia-metodologia hark suposa zitzakeen dependentzia guztiakin.

Edonola ere, eskerga izango zen idazle haien erronka, batik bat beraien gizataldearekin ikasitako hizkuntzan baliatu behar izan zutelako idazteko, hau da, inon landu gabeko edo oso gutxi landutako euskararekin idaztea erabaki zutelako. Egiten duten aukerak lan erraldoia eta, aldi berean, ohorea ekarriko die ondorioz: idazkerarako erabat formalizatu eta arautu gabekoa delako euskara (hortik, besteak beste, Leizarragaren handitasuna) edota, formalizatzeko bideaz gain, forma berriak bilatzen saiatuko direlako.

Oro har –eta egoera hartatik sortutako euskarazko idazlan gehienek hori baino ez dute erakusten–, alfabetatzeko aukera eta idazteko premia, gogoia eta posibilitatea elizgizonen ingurura mugatuko diren faktoreak suertatuko ziren XVII. mendearen lehen erdialdearen bukaerararte.

Bestalde, gorago adierazi legez, bi fase baina hiru interes-gune nagusi edukiko genituzke garai hartako produkzio idatzia idazleriaren ikuspuntutik ulertzeko. Errenazimenduaren azken oihartzunak eta protestanteen erreforma elkarren arteko borroka handiegirik gabe bilduko dituen epea litzateke lehena eta Kontrarreformaren ondokoa bigarrena.

Lehenengoan, Etxepare zein Leizarraga genituzke bakoitza bere esparruan eta bere produkzioarekin, interes arras ezberdinei erantzuten diena. Kronologikoki XVI. mendearen bigarren erdialdean kokatuko dira ditugun obra inprimatuak.

Kontrarreformak, berriz, itxia, ideologikoki atzerakoia eta *status* erlijiosoaren autodefentsa ziurtatzeko bortizki erreprimi-

tzailea izango den izpiritua ekarriko du, Barrokoaren muina osatzen joango den egitura ideologikoa azken buruan<sup>24</sup>. Gurean, izpiritu honen fruitu izango den idatzizko produkzio inprimatua XVII. mendekoa izango da bete-betean.

Ezaugarri orokor gisa, protestantismoak testu sakratuetara iristeko ekarritako planteamenduak (herri-hizkuntzen balioa azpimarratzen zuenak, alegia) bat egingo du –baina beste arrazoiengatik, jakina– kontraerreformaren borrokaren errealismoarekin (hizkuntza bernakuloen garrantziaz ohartuz) eta zuzenki ahalbidetuko Dill Goode-k “movimiento nacionalista” deitzen zuen hura<sup>25</sup> bezalako baten sorrera euskal eremu –linguistikoa– batean, Lapurdi inguruan edo, zehatzago agian, lapurteraren esparruan.

Errealitatea ulertzeko eta esplikazio egokiak bilatzeko nahiak gizakion artean sortu izan ohi duen joerari jarraituz, Lapurdi inguru hartan sortutako produkzio idatziak, batetik, eta liburuetan agertu onespén hitzen autoreen presentzia erredundanteak, bestetik, “idazle eskola” edota “mugimendu”<sup>26</sup> gisako kontzeptuak erabiltzera bultzatu izan dute euskal literaturaren historialaria.

Hori dela eta, “Eskola” hartako idazleen arteko loturak zeintsu ziren nolabait antzemateko irizpide ezberdinak –baina ez beti egokiegiak– erabili izan dira gure artean. Batetik, ustezko

<sup>24</sup> Barrokoaren hipotesi desberdinen artean, interesgarri deritzogun Maravall-ek ildo honetan garatu zuenari (ikus Maravall 1975). Haren arabera, mundu-ikuskerara berri bat baino gehiago, historikoki botere-taldeek, gatazka sozio-ekonomikoei aurre egiteko antolatutako erantzuna litzateke Barrokoa.

<sup>25</sup> “En el Renacimiento del siglo XVI, junto con el Humanismo surgió un movimiento nacionalista en que algunos escritores se resolvían a escribir las obras literarias de valor científico en su lengua nacional” (Dill Goode 1969, 29).

<sup>26</sup> “Frente a la escasa e inconexa actividad anterior, aparece aquí en el siglo XVII, de modo inesperado, un círculo de autores que trabajan en estrecha relación [...] Se trata de un movimiento de eclesiásticos que cuentan entre sus lectores y animadores a un cierto número de seculares instruidos” (Mítxelena 1960, 68).

lotura pertsonal-profesionalei zegozkienak; ezagunak dira, besteren artean, edozein esku-liburutan aurki daitezkeen hauek: Axular (Materreren liburuaren aztertzaile: Sara 1616; Etxeberri Ziburukoaren bi liburutan aztertzaile), Argaignaratz (Etxeberriren *Noelac*-en azaltzen den poesiaren egile), Harizmendi (Haranbururi eskainitako poesiaren egilea, honen liburuan jarria; Axularren koadjutorra).

Horrezaz gain, askok azpimarratu izan dute “Compaiñia on batean, euscaldunic baicen etcen leccuan” (*Gero*, 15) erabaki zela *Gero* liburua idaztea, pasarte horretan “eskola” delakoaren aztarnarik bailitzen. Interpretazio horren arabera, inguruetako apaizak arima-pastoralaz edo mintzatzeko biltzen ziren, bertan mota guztietako arazoak mahairatzen zituztelarik: arazo praktikoak nagusiki, baina agian hizkuntzazkoak ere bai.

Bestalde, ez bide da gutxiestekoa izan hurbiltasun geografikoaren irizpidea, Sara eta Ziburu ingurukoak suertatu baitziren idazle garrantzitsu gehienak. Jakina, lapurteraren aldeko joera bera, lapurteraz idaztearena hain zuzen, behin-betiko irizpidez hartu izan da arazoa gainditzeko<sup>27</sup>.

Edozein modutan, bada “eskola” delako ideia edo intuizio honekin ados ez dagoenik ere (ik. Itziar Mitxelena 1981, 74; Urgell 1991, 909-910), izan ere, kontzeptu erabilgarri eta esplikagarria baino gehiago, arazoak nahastu eta ezer esplikatzen ez duen topiko bihur baitaiteke “Sarako Eskola” delako horrena.

<sup>27</sup> Beste batzuk urrunago joan dira delako Eskola haren ezaugarriak zehazterakoan, besteren artean bileren tokia ere identifikatu uste baitute: “Sara, Donibane-Lohizune eta Ziburuko apaizak frantziskotarren komentu batean biltzen ziren euskerazko lanak prestatu asmoz, eta elkarren liburuak epaitzen zituzten argitaratu aurretik” (“Sarako Eskola”, *Hiztegi Entziklopedikoa*, Elhuyar, 1993, 1495 or.). Ikus daitekeenez, baieztapen honen jatorria Villasanteren obran dago: “Muy pronto, a lo que parece, en el conventito de Ciboure se dieron cita los hombres que iban a ser los autores y creadores del movimiento de San Juan de Luz” (1979, 70); baina honen “a lo que parece” zuhur hori zeharo ezabaturik eman dute artikulugile berriek.

Arazo honetan, alabaina, bada behar beste azpimarratu ez den faktore argi-emailerik. Batetik, maiz asko zalantza moduan utzi izan da mende honen hasieran idazle gisara agertzen diren elizgizon hauen adskribapen ideologikoa. Bestelako frogantza historikoen behar gorria badugu ere, garbi dago gure idazle hauek kontrarreformaren izpiritu eta ortodoxiaren barrenean sartuta zeudela zeharo eta ez zutela haien haragian eza-gutu beste apaiz zenbaitek jasan behar izan zuten errepresioa. Honek guztiak mende erdi honetan idatzitako obren izaera erakutsiko liguke nabarmenkiro, Axular eta haren liburua bera horren adibide garbia<sup>28</sup> genituzkeelarik.

Aurrekoarekin loturik, esan dezagun zeharka agertutako apaiz euskaldun kultuek ere bazutela ziurrenik idatzizko betebeharrak kontrarreformista haietan eginkizunik, eta ez bakarrik ortodoxiaren zaindari gisa; Matteredeneko Gilantena bezalako apaiz euskaldunak, esaterako, edota Axularren obran agertzen diren Urtubi eta Disanetxe bezalakoak oso egokiak baitziruditen elizbarrutiko pastoralaren lerroak diseinatzeko eta Axularren “konpainia on” hartako partaide izateko<sup>29</sup>. Esan gabe doa: “konpainia-burua” Bertrand de Etxauz bera izan zitekeen hainbat urtetan.

<sup>28</sup> Autore zenbaiten intuizioa frogatzeko dagoen arren (Axular Lancreren idazkari edo laguntzaile izan zela pentsatzen dutenena, alegia), urdazubiarra ez bide zen kontrarreformaren planteamendu eta praktika hitzetatik urrutiegi ibili. Edonola ere, hasiera-hasieratik Elizaren eta Henri IV. erregearen aldetik izandako laguntza eta pribilegioak (legalki ez zegokion Sarako erretoretza, esaterako) Axularren “zintzotasun” eta inplikazio monarkiko eta kontrarreformistez mintzo lirarteke ziurrenik.

<sup>29</sup> Axularren “konpainia on” hark ez zuen ezinbestean bat egin behar orain arte “eskola” edo “talde” kontzeptuaren pean ulertu ohi denarekin, saratar-tuak berak esaten dituenetatik (*Gero*, 15 or.) erraz ondoriozta baitaiteke elizbarrutiko pastora edo discinatzan ari zirela han bildutakoak, hots, “arimazaintzaz” ihardutean, gaia aukeratzen da eta liburuaren egiteko kargua nori eman erabaki. Beraz, konpainia hartan bazegokeen gero ezer idatziko ez zuen euskaldunik (Dissanetxe, Urtubia, Etxauz bera...) eta, alderantziz, idazle gisa agertzen zaizkigunuen artean bazegokeen Axularren konpainia hartara joateko gonbiterik ez zuenik ere. Ohi bezala, jakiturgia, elokuentzia, eskainitako zerbitzuak, titulazioak... izan zitezkeen pastoraltza erlijiosorako partaide



Nolanahi ere den, ohargarria da eskolakidetzat edo hartu izan diren idazle horietako asko (guztiak, agian?), elizgizonak izateaz gain, predikariak ere bazirela edo izanak zirela lanbidez. Horrela agertuko dira, esaterako, Haranburu (“predicateur et confeseur de nostre Ordre”<sup>30</sup>), Argaignaratz (“aphez ea Ciburuco predicari ordinarioa[c]”<sup>31</sup>), Axular (Donibane-Lohizunen, Sarara baino lehen<sup>32</sup>),... Eta faktore honen garrantzia handia izango zen sormenerako tokia uzten zuten idazlanetan, predikazio teknika etengabe isuriko baitzen haietan.

Guztiarekin, argi dago arrago moduko hartatik sortutako ahalegin literarioek<sup>33</sup> euskara idatziari homogeneitate handia emango ziotela eta euskarak behar zuen neurrian egokituko (eguneratuko?) zutela<sup>34</sup>. Bereziki azpimarratu beharrekoa da erabiliko den lapurtera mota, hots, sortuko den literatur hizkuntza Leizarragarena baino “populistagoa” izango dela, kultismo gutxiagokoa, eta, ondorioz, arrakastatsu bihurtzeko aukera

---

izateko baldintzak, idazleen artean, Axularrek eta Etxeberri Ziburukoak ongien betetzen bide zituztenak alegia.

<sup>30</sup> *Debocono escuarra, miraila eta oracinotegua...*, 1635, Fr. Bonal Probintzialaren idazkian (1 or.).

<sup>31</sup> Ikus Vinson 1891, § 21 (1984, 84 or.).

<sup>32</sup> Ez da ahaztu behar goren mailako karguak edo titulazioak (Axularren baxilerra eta “erretora”, Etxeberri Ziburukoaren “doctor Theologoa”...) bestelako egiteko profesional apalagoak ere barnehar zitzakeela.

<sup>33</sup> Nahiago dugu ahalegin literarioez baino “produkzio idatziaz” mintzatzea, izan ere lehenengo espresioak badu bigarrenak ez daukan balorazio-maila ez beti egokia. Produkzio idatziaz hitzegiten denean, aldiz, deskribapen hutsa baino ez da adierazten, neutroagoa da eta ez du inolako aurriritzirik ekartzen eztabaidara, sarri askotan gero justifikatu ezinezko bihurtzen diren aurriritziak izan ohi baitira hauek.

<sup>34</sup> Mitxelena zioen legez, “Escriben en una lengua de aspecto mucho más moderno que la de Etxepare, incluso, que la de Leizarraga: se trata de la lengua cotidiana (el laboriano de Sara y de San Juan de Luz) elevada sin esfuerzo a lengua literaria. Algunos de los autores poseen una magnífica formación humanística y todos han recibido al menos una iniciación en las bellas artes: no es de extrañar, pues, que no sientan preocupaciones puristas ni en el léxico ni en la sintaxis, ni huyan con horror de lo que de sus lecturas pudieran

gehiagokoa. Jakina, herri-kutsua ez da bakarrik agertuko lexi-ko edota gramatikaren esparruan. Literatur iruditeria eta baliabide gehienak (guztiak?) ere ildo horretakoak izango dira oro har, irakurle arruntengana iristeko modukoak.

Ildo horretatik, mende hasieran euskara mintzatzetik bakarrik ezagutzen zuten irakurlegaietara erraztasun guztiak eskaini behar zitzaizkien, ezer lortuko bazen. Eta irakurle bihurtu nahi izate horrek alfabetatze lanetan sartzeko premia<sup>35</sup> zekarkien idazleei berei, elizgizonari alegia, besteak beste liburuen hasieran beste hizkuntza batean irakurtzen zekitenei euskaraz egokiro irakurtzeko oharrak eginez eta aholkuak emanez (ikus Leizarragarena, esaterako<sup>36</sup>).

Edonola ere, hasi berria zen irakurletze prozesu horrek ezinbestean eskatzen zuen irakurria izateko elementua, hots, paper idatzia. Denbora gutxian, eta euskarazko obren argitalpenen ugaltzearekin esker, irakurle-areagotze nabarmena gertatu bide zen gure artean ere. Eta, isatsa jaten duen arrainaren antzera, fenomeno honek ondoko urteetako ekoizpen idatzia bideratuko zuen hein handi batean<sup>37</sup>: “las biblias, los libros de li-

deslizarse en sus escritos vascos. Sin embargo, no llegan en ningún momento a los excesos cultistas y latinizantes de Leizarraga” (Mitzelena 1960, 69).

<sup>35</sup> Baina ez beti gogoratu behar baita ezen “en los siglos XVI y XVII, más que antes sin duda, la relación con lo escrito no implica forzosamente una lectura individual” (Chartier 1993, 100).

<sup>36</sup> Ez dugu uste gehiegikeriarik esango genukeenik erreforma protestanteak euskal lurraldeetan ere alfabetizazio mailaren areagotze nabarmena ekarri zuela baieztuko bagenu, alfabetizazio elebakarra gainera, hots, euskara hutsez mintzatzen zirenei irakurtzeko gaitasuna eskaini ziena finean tokian tokiko hizkuntza baino ez baitzuten hobetsi kalbinistek Jainkoaren Hitzari zuzenean heltzeko bide gisa. Elebakar alfabetatuak ziren halaber Axularrek “Irakurtzaileari” izeneko atalean gogoan zituen irakurlegaiak: “Eta on zatekeiela gauza huncetzaz *liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat egitea*” (Gero 15 or.; gurea da letrakera etzana).

<sup>37</sup> Herri xehea, gehienik ere, *colportage* izeneko literaturaren irakurlea izan ohi zen, hau da, herriz herri saltzen zen literaturarena, normalean gaizki inprimaturikoa eta sailduen bizitzak, koplak almanekeak eta beste jasotzen zuena. Kasu horietan, jakina, irakurleak beste hizkuntza batean alfabetatuak ohi ziren.

turgia (horas, breviarios, oficios), los libros de devoción [...] y la literatura apologética son las adquisiciones más frecuentes de estos lectores de rango modesto, sean católicos o reformados” (Chartier 1993, 99).

## Bibliografía

- Axular, *Guero*, Bordele, 1643 (faksimila: Bilbo, 1988)
- Etxeberri Ziburukoa, *Fliçara erabiltceco liburua*, 1636
- Granada, L. de: *Guía de Pecadores*, Lisboa, Joannes Blavio de Colonia, 1556 (lehen edizio hau orain: Madrid, Espasa-Calpe, 1953; edizioa, hitzaurrea eta oharrak: Matias Martínez Burgos)
- \_\_\_\_\_, *Guía de Pecadores*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, 1, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE VI), 1944, 1-470.
- Haranburu, *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua...*, 1635.
- Index librorum prohibitorum et expurgatorum(...)* Madriti, Ludovicum Sanchez typographum Regium, 1612.
- Larramendi, M., *Diccionario Trilingüe*, 1745 (San Sebastian).
- Materre, E., *Dotrina Christiana*, Bordele, Jaques Millanges, 1623.
- \*\*\*\*\*
- Bujanda, J.M., 1985, “Censure romaine et censure espagnole au XVIIe siècle: les Index romain et espagnol de 1559”, *Annuario dell’Istituto Storico Italiano per l’età moderna e contemporanea* 35/36, 1983/1984, Roma, 169-186.
- Burke, P., 1991, *La cultura popular en la Europa moderna*, Madrid (jatorrizkoa: *Popular Culture in Early Modern Europe*, 1978)
- Campbell, Y., 1993, “En torno a la historia de la literatura en Nueva Vizcaya (oralidad, visualización y textos)”, in Manuel Garcia Martin (ed.), 1993, 209-216.
- Caro Baroja, J., 1985, *Brujeria vasca. Estudios Vasco V*, San Sebastian.
- Chartier, R., 1993, *Libros, lecturas y lectores en la Edad Moderna*, Madrid.
- Garcia Martin, M. (ed.), 1993, *Estado actual de los estudios sobre el Siglo de oro. Actas del II Congreso Internacional de Hispanistas del Siglo de Oro*, I, Salamanca.
- Intxausti, J., 1990, *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Gasteiz.
- Lekuona, J. M., 1985, “Bi literatur estilo gurean”, *Mundatiz* 20, 59-64.
- Maravall, J. A., 1975, *La cultura del Barroco. Análisis de una estructura histórica*, (3. ed.: Barcelona, 1983).
- Mitxelena, K., 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid.
- \_\_\_\_\_, 1981, “Euskal literaturaren kondairarako oinarriak”, in *Euskal linguistika eta literatura: hibe berriak*, Bilbo, 279-292.

- Mitxelena, I., 1981, "La literatura religiosa labortana del siglo XVII", *Muga* 17, 62-74.
- Reguera, I., 1984, *La Inquisición española en el País Vasco (El Tribunal de Calaborra, 1513-1579)*, San Sebastián.
- Salaberri, P., 1999, "Testu-menpekotasuna Axularren obran", *FLV* 80, 33-57.
- \_\_\_\_\_, 2000, "Axularren testu-zorrak", *FLV* 84, 193-209.
- Sarasola, I., 1971, *Euskal literaturaren historia* (gazteletaz: *Historia social de la Literatura Vasca*, Madrid, 1976).
- \_\_\_\_\_, 1975, *Euskal literatura numerotan*, Donostia,
- Soulet, J.F., 1974, *La vie quotidienne dans les Pyrénées dous l'ancien régime (du XVI au XVIII siècle)*, Paris.
- Torrealdai, J.M., 1997, *Euskal Kultura gaur. Liburuaren mundua*, Jakin.
- Urquijo, J. de, 1923, "Cosas de Antaño. Las Sinodales de Calahorra (1602-1700)", *RIEV* XIV, 335-352.
- Villasante, L., 1972, *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, Oñati.
- \_\_\_\_\_, 1979, *Historia de la Literatura Vasca* (2. ed., zuzendua), Oñati.
- Vinson, J., 1880, "Le Gueroco Guero d'Axular". *Revue de Bibliophiles* II, 104-109.
- \_\_\_\_\_, 1891, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Paris (Orain: *Essai [...]*, 1983; *Bibliographie de la Langue Basque*, San Sebastián, 1984).
- \_\_\_\_\_, 1898, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque (Additions et corrections; citations et références; Journaux et revues)*, Paris (Orain: *Essai [...] Complement et supplement*, 1983; *Bibliographie de la Langue Basque*, San Sebastián, 1984).

*Patxi Salaberri Muñoa*